

# Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko abuztuaren 29a

\*

## Elkartasuna eraikitzen

■ Iruñean nazioarteko elkartasunaren alorrean lan egiten duten bederatzi talde elkartu eta Zabaldi elkartasun etxea osatzeari ekin diote. Elkartasun finantzaketaren bitartez lortu dute Navarrerria kaleko 25. atariko etxabea erosteko dirua, eta, elkartasunak bultzaturik, musutruk lan eginez ari dira etxabea zaharberritzen taldeotako kideak zein haien lagunak. Elkartasunez

elkartasuna eraikitzen ari dira; izan ere, Zabaldi elkartasun etxea irekitzen dutelarik, han egingen diren ekintzetan elkartasuna —zer bestela?— izanen da nagusi: etorkinentzako te-etxea, elkartasun denda, dokumentazio zentroa, batzarrak, batzordeak, bilerak, hitzaldiak, ikastaroak, erakustaldiak, bideo emanaldiak, jaiak... ■



Bederatzi talde bildu dira Zabaldi elkartasun etxea osatzeko asmoz.

JOXE LACALLE

### Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Batzuentzat bukatzen ariko diren arren, niri orain hasten zaizkit oporrak. Egia da udan ez dudala lan handirik egin, baina lana beti da lan eta gainera udako egun santu guztiak bazter honetan pasatu ondotik, benetako bakazioak motxila bizkarrean hartu eta autobus batera igotzean hasten dira. Hala ere, autobusean lehendabiziko hamar orduak behin igaro ondoren, dudana dena emanen nuke handik jaitsi eta ohatze bat lortzeko. Aurten ere hori gertatuko zait, Marokora bainoa, baina berdin zait, Marokora noa, Marokora!

Algecirasen ferrya hartu eta usai berexia, haize idorra, herri xuriak, azal

### Oporrak

ilunak sumatu orduko, bidaiari pasatako lepoko mina eta neke guztiak ahantzita daude. Bueltakoa bai izanen dela tortura! Joaterakoan zerbait duzu zain (zerbait berria erran nahi dut, ama), ilusioz betea zoaz eta bidea gogorra izan arren mereziko duela uste duzu. Baina bueltakoan dena da desberdin. Espero dut oporrek utzitako biharamunak Lesakara iritsi arte irautea (eta *almohadilla* horietako bat izatea) bertela nire burua autobusetik beheiti botako dut eta. Baina nola hasiko naiz ba bueltan pentsatzen, oraindik ez banaiz joan!

Astlehenean abiatzen naiz paradi-

surantz, eta irrikatzen nago, urte osoa pasatu dut irrikitan, egunak kontatzen, irabazitako diru pixarra noiz gastatu esperoan. Eta opor hauek bukatzean berze zerbait izanen dut buruan eta hori lortu arteko egunak, ze egunak! Segundoa eternitate bilakatuko zaizkit. Ze gauza!

Ahal izanez gero, denok gelditutako denbora, urteak ez pasatzea baitugu amets; eta era berean astebukaera, eguberriak edo udako oporrak ailegatzeko desiatzen gaude. Beti denboraren beldur eta beti hurrengo noiz iritsiko zain, etorkizunarekin ametsetan. X



\* **GURE AUKERAK**

**KONTZERTUAK**

**Atallu:** Herriko jaiak direla eta, gaur, 24:30etatik aurrera, dantzaldia Laiotz taldearekin, eta bihar, Etzakit taldea.

**Lekunberri:** Kultur 97 egitarauaren barruan, gaur, iluntzeko 20:30etan, Amaia Zubiriaren kantaldia izango da Lekunberriko Mitxausenea Kultur Etxean.

**Iruñea:** Gaur, gaueko 21:00etan, Roberto C. Mayer and the Noiseslowers taldea izanen da Donegal tabernan.

**Berriozar:** Bihar, arratsaldeko 18:00etan, bertako jaien egitarauaren barruan, jota jaialdia Nafarroako oihartzunak taldearekin.

**Zangoza:** Bihar, goizeko 11:00etan, San Nicolas komentuan, Zangotzako Nora Korallaren emanaldia izanen da.

**Orgiko hariztia:** Kultur 97-ren barruan, 12:30etan eta 18:00etan, Boskote Klasikoaren emanaldia izango da igandean.

**Orreaga:** Igandean, eguerdiko 13:00ean, Iruñeako Ganbara Koruaren kontzertua izango da, Kultur 97 egitarauaren barruan.

**ZINEA**

**Olexoa:** Gaur, Herriz herri programaren barruan, Tormenta Blanca pelikula eskeiniko da gaueko 21:30etan herriko plazan.

**Muruzabal:** Bihar, 21:30etan, Herriz herri kanpaina dela eta, Tormenta Blanca pelikula izango da ikusgai herriko pilotalekuan.

**Mutiloabeiti:** Twister pelikula ezaguna ikusteko aukera izango da bihar, gaueko 21:30etan, Eguzki enparantzan. Eguraldi txarra eginez gero, bertako kultur etxean.

**ANTZERKIA**

**Beriain:** TEN Pinpillpauxa taldeak La canciòn del bandido antzezlan eskeiniko du gaur, gaueko 22:00etan Larre plazan.

**Larraona:** Gaur, gaueko 21:00etan, herriko pilotalekuan Ekilicué antzezlan eskeiniko du Narrentrepe Teatro taldeak, Herri Herri egitarauaren barruan.

**Mutiloabeiti:** Ostegunez, Nets y Pulits konpainiak Miscelçnea del Fuego antzezlan-ikuskitzuzun piroteknikoa eskeiniko du Mutiloa enparantzan, gaueko 21:30etan.

**ERAKUSKETAK**

**Iruñea:** Mixtoen aretoan, abuztuaren 28a bitartean, Manolete eta bere garaiari buruzko erakusketa dago. Orduetgia: lan egunetan 18:00etatik 21:00etara, eta jai egunetan 12:00 etatik 14:00etara.

**Lizarrar:** Banco Atlanticoaren egoitzan, Maria Luisa Irastorza-ren olio lanak izango dira ikusgai hilabete honetan. Orduetgia: lan egunetan, 19:00etatik 21:00etara, eta ostegunetan eta asteburuetan, 12:00etatik 14:00etara.

**Elizondo:** Arizkunenea Kultur Etxean, Elias Garraldaren Bidasoako paisaiak izeneko erakusketa dago zabalik, abuztuaren 31a bitartean. Orduetgia: 11:30etatik 13:30etara, eta 18:30etatik 21:30etara.

*nafar kronika*

Pello Argiñarena

**San Donato Zarzuelan**

**C**ristina de Borbón neska argia, ederra eta atsegina dela dio jaso dugun bertso ofizialak. Ni ez naiz inor hori ukatzen hasteko, are gutxiago beste ahizparekin alderatzen badugu behintzat.

Gure protagonistak urriaren 4a, Bartzelona eta Iñaki Urdangarin aukeratu ditu bere ezkontza ospatzeko.


Nafarroaren izenean bertan izanen da Miguel Sanz. Zarzuelako segurtasun zerbitzuek dispositibo berezia antolatu dute, arratsaldeak aurrera eta likidoak barrura egin ahala Corellakoa jotak kantatzen hasten denean, egoera kontrolpean izateko. Sarritan, ezkontza batek eragiten duen etekin ekonomikoa xedetzat hartuz, bikote anitz kontratua sinatzera ausartzen dira.

Begi-bistakoa da Espainiako erregearen alabaren eta Vital Kutxako presidentearen semearen kasuan dirua ez dela lehentasuna. Horrebestez, opariak ez dira ohiko sobre itxiak izanen. Gure presidentek hainbat buruhauste izanen zituelakoan nengoen opari egokiena eta nafarrena aukeratu nahian. Horra hor: San Fermiñen errelikia bat, Lodosako piperrak, Saralegiñen harri bat, Alesbesko zainzuri *cojonudoak* —Juan Carlos I.ak dixit—, Foruen monumentuen erreplikatxo bat, Mielotxinen irudi bat, biolentoei kendutako koktel-pack bat, Erronkariko gazta...

Baito! nire uste guztiak ustel ziren ordea. Diputazioburuak koadro bat oparituko dio Cristina de Borboni. Bai, Cristinari soilik eta ez bikoteari. Protokoloak hala eskatzen omen du. Miguel Sanzek gustura beteko du ordea, senargaiaren izen-abizen eta izaera euskaldunak eta honen aitaren karneta jeltzaleak suño txarrak sortzen baitizkio dagoeneko.

Elenari eskainitako opari berbera eginen zaio bere ahizpari. Neurriak ere berdinak. Beraz, ez du burua gehiegi estutu. Pedro Salaberrik jaso du obra margotzeko ardura 650.000 pezetaren truke.

Irudia aukeratzeko lana artistaren esku utzi da beroni zor zaion errespetuarengatik baino gehiago abuztuko beroak gure agintarien garuna lehortu duelako. Pintoreak San Donato mendiarren irudia islatzea erabaki du. Hemen-dik hamarkada batera Salaberriren obra non eta nola dagoen ezagutzea gustatuko litzaidake. Agian, ordurako monarkiak demokrazia ponpoxo honetan tabu izateari utzi izanen dio eta norbaitek galdera parlamentario bat eginen du. Akaso, monarkiarik gabeko euskal errepublika berriaren oinarriak eraikitzen egonen gara buru-belarri lanean. Seguruenik, hamar urte zaharrago izanen gara. Besterik ez, ordurako Felipe ezkonduko dutelakoan nago, bestela a zer nolako koadroa.



*asteko pertsonaiak*



**David Mikeleiz**  
Disko jaurtitzaila

■ Asteazkenean, David Mikeleizek hirugarren aldiz irabazi zuen Marcellako *rabiosa* jaurtiketa txapelketa. Figaroleko morroskoak munduko markarik hoberena egin zuen, gainera, aitzurra 37,6 metrora botata. Mikeleizek besteen aldean abantaila zuen, dudarik gabe, disko jaurtitzaila profesionala da eta. Beteranoen artean Miguel Zestau, Leitzako erremontista ohia, nagusitu zen. Leitzarra lehendabiziko aldiz joan zen, denborapasa, baina ez zuen marka makala egin: 30,5 metro. Txapelketa Marcellako gaztelu zaharrean egin zuten, urtero bezala. Herritarrek XV. mendeko gazteluaren egoera penagarria salatzeke aprobetxatu zuten ekitaldia.



**Tomas Yerro**  
Kultura zuzendaria

■ Tomas Yerro Kultura zuzendariak aurtengo Nafarroako Jaialdien balantzea egin zuen herenegun. Jendearen erantzuna apal samarra izan bada ere (Jaialdiek 11.000 ikus-entzule bildu dituzte aurtan, iaz baino 5.000 gutxiago), Yerro pozik agertu zen, «kalitateko ikuskizunak» eskaini dituztela azpimarratuz. Nafarroako Gobernuak kultur arduradunak gehitu zuenez, horixe zen Jaialdien helburua, eta lortu dute. Hala ere, bistan da Jaialdien antolatzaileek zerbait egin beharko dutela jendea aspertu nahi ez badute. Kultura Sailean ere jabetu dira horretaz, eta zuzendari artistiko baten bila dabiltza egitarau erakargarriagoa taxutzeko asmoz. Era berean, Jaialdien iraupena laburtu eta egoitza bakarra izateko aukera aztertzen ari dira.

*ahaztu gabe!*



**ARAZURIKO TXERRI LASTERKETA**

Arazurik atzo hasi zituen jaiak, baina herriko festetako ekitaldi bereizgarriena, txerri lasterketa alegia, asteburuan izango da. Txerri lasterketako lehen txanda bihar egingo dute, arratsaldeko zazpi eta erdieetatik aurrera, baina irabazten duen txerriaren muturra ikusteko igandera arte itxaron beharko dute arazuriarrek. Bigarren eta azken txanda igande arratsaldean izango da, ordu berean. Gauero, hamarretatik aurrera eta goizeko bostak arte, dantzaldia egongo da herriko plazan: gaur, etzi eta astelehenean Elurte orkestrarekin; bihar, berriz, Dindrots taldeak alaituko du dantzaldia. Arazuritik hurbil, Ororbian ere jaietan daude ostiralaz geroztik. Egunero dituzte herri bazkaria, bigantxak eta dantzaldia (Elurte orkestrarekin, noski: Arazurin jotzen ez duten gauean Ororbian joko dute). Festak asteartean amaituko dira, *po bre de mi*-arekin.

*adi!*

**Euskalerrria Irratia FM 91,4**

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

**Xorroxin Irratia FM 107,5**

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

**Aralar Irratia FM 106,2**

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketak.

**Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n**

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haur-erantzako saioa 12.30etan.



## Arakil-Uharte

## Artzain Eguna: bada zer ikusia eta ikasia

Artzainaren omenezko festa ospetsua igandean ospatuko da Arakil-Uhartean

**E**kitaldiz betea dago 1997ko Artzain Eguna-ren egitaraua. Guztiak artzain munduaren ingurukoak. Lehiaketa ugari izango dira Uhartean, baina, inongo zalantzarik gabe, txakurrena da arrakastatsuen eta ikusgarriena.

Urko Aristi / Iruñea

UHARTEN Artzain Eguna ospatzen den hogeita hamargarren urtea da hau. Urtero-urtero ekitaldi desberdinak gehitzen saiatu dira antolatzaileak, eta baita lortu ere. Igandean, besteak beste, ardi latxaren erakusketa eta esne produkzio lehiaketa, artesne gazten lehiaketa, makinazko ardi mozte txapelketa, eta, nola ez, artzain txakurren txapelketa izango dira Uhartean.

Oso gutxi dira hogeita hamargarren ekitaldira heltzen diren kultur ekitaldiak. Horregatik, aurtengoarekin, festa hau aurrera ateratzen lagundu duten guztiak omendu nahi ditu antolatzaile lanetan ibili den Aralar-Mendi Kultur, Kirol eta Jolasarako elkarteak. Duela hogeita hamar urte, Oñatiarrak etorri zitzaizkion elkarte honi, Euskal Herriko Artzain Txakurren lehiaketa antolatzeko asmoa zutela, eta Nafarroan kanporaketa bat behar zuten, ea prestatuko zuten esanez. Uhartearrei ez zitzaizen ideia txarra iruditu, eta harrezkero, dagoeneko hogeita hamar aldiz antolatu dute Artzain Eguna. Horrela, urtero-urtero, egitaraua gauza berriak sartzen ahalegindu dira: dagoeneko, txapelketa desberdin ugari ospatzen da abuztuaren azken asteburuan, Sakanako herri honetan.

**Makinazko ardi mozte txapelketa**

Lehiaketa hauetatik guztiengatik makinazko ardi moztearena da berriena. Aurtengoan, ospatzen den hamargarren aldia izango da. Goizeko hamaiketan hasiko den proba honetan parte hartu nahi dutenek, txapelketa baino ordubete lehenago eman beharko dute izena. Makinaren bidez moztu beharko da ardiaren ilea, ezingo da eskuz moztu, eta ezin-ingo da moztetako ardiak lotu. Abereei zauri larriak eginez gero artzaina kanporatua izango da. Kanporaketan moztaileak lau laguneko multzotan arituko dira, bakoitzak hiru ardi moztu beharko dituelarik. Ondoren, punturik gehien biltzen duten taldekoak arituko dira nor baino nor. Irabazlearentzat 15.000 pezeta eta sari berezia izango dira; bigarrenarentzat, sari berezia gain, 8.000 pezeta; hirugarrenarentzat, berriz, 6.000. Aipatzekoa da, proba hau Espainiako Ardi Mozte Txapelketarako puntuagarria dela.



Artzain txakurren lehiaketa da eguneko ikuskizunik preziatuena.

LACALLE

**Artesne gazten lehiaketa** • Nafarroan gazta on askoak ditugula gauza jakina da. Idiazabalgo gazta paregabeak egiten trebeak izaten dira gure artzaiak. Hori erakusteko aukera ere izango dute igandean Uhartean. Artesne gazten XVI. lehiaketara aurkeztutakoak bakoitzaren ardiaren esne gordinaz egindakoak beharko dute izan. Lehiaketa baino 60 egun lehenago egon beharko dute ondudak, eta kilo bat baino gehiago eta bi baino gutxiagoko pisukoak. Epaimahaian, betiko legez, sukaldari, kazetari eta aditu ugari izango dira. Haiek goizeko 11:00etan ekingo diote gazta desberdinen dastapenari. Ez da nolanhako erabakia beraiek hartu beharrek: beraiek hoberena dela dioten gazta horregatik, gero diru mordoxka bat ordainduko baitute ondoren egingo den enkantean. Azken urteetan, Madrileraino joan izan da gazta irabazlea, Fronton jatetxera. Aurtan ere, seguruenik salatuko da bitxi hau eskuratzen Ansorena errazkindarra. Bitxi horren egileak 35.000 pezeta jasoko ditu, bigarrenak, 20.000 eta hirugarrenak 10.000. Hirurek, hori bai, sari-agiria jasoko dute, beraien gazten kalitatea baieztatuko duen agiria.

**Beste lehiaketa batzuk** • Esnerik gehien, eta esne hoberena ematen duen ardiak ere sarituak izango dira Uharteko Artzain Egunean. Erabat sukaldean aritzen diren artzainen andreak ere izango dute haien abilezia erakusteko aukera. Ardikiarekin egindako gisatu lehiaketa izango baita eguerdi partean.

## Artzain Txakurren Txapelketa

INONGO zalantzarik gabe, Artzain Txakurren Txapelketa da Uharteko Artzain Eguneko ekitaldirik arrakastatsuen. Jende pila bat bildu ohi da abuztuaren azken igandean, Geinbera barrutiraino, bertan ospatzen baita aipatutako txapelketa. Hemen hautatzen da Oñatiko Euskal Herriko Txapelketan nor ordezkatzeko duen gure herrialdea. Nafarroa guztitik etorritako hainbat artzain izango dira beren Txiki eta Lagun-ekin.

Txakurra omen da gizakiaren lagun hoberena, eta beharko, txapelketa osatzen duten probetan artzainak agindutakoa bete behar izaten baitu txakurrak, zintzo-zintzo. Lehenik eta lehen, ikurrinaz markaturik dagoen ibilbidea egin behar du txakurrak, artzainaren aginduak betez, jakina. Gero artaldea esate batetik pasatzea lortu behar du, eta, azkenik, ukulu itsura batera sartu behar ditu ardiak eta ondoren atera. Ahalik eta azkarren egin beharko ditu lanok txakurrak, baina, hala ere, puntuak ez dira denboraren arabera bakarrik banatuko: txakurraren obedientzia, mentasuna, artaldea menperatzeko trebetasuna eta ardiekiko tratua ona ere hartuko dira kontuan. Irabazten duen artzainarentzat 20.000 pezetako saria izango da, bigarrenarentzat 15.000koa, eta hirugarrenarentzat 13.000koa. Hori bai, hirurentzat trofeo bana izango da. Beste bi sari ere izango dira lehiaketaren barruan: jantzi onena duen artzainarentzat bat, eta euskal artzain-txakur arraza onenarentzat bestea.

Lehiaketak bai, ugari, Uhartean, baina bestelakorik ere izango da. Egun guztian artisau erakusketa egongo da herriko kaleetan. Eskuz egindako tresnak eta lanabesak izango dira bertan, artzainek eta bertara hurbiltzen direnek ikus ahal ditzaten. Izan ere, festa horretara ez dira artzainak bakarrik hurbiltzen, eta hori kontuan hartuta, jende asko izan daiteke bertan gazta nola egiten den ez dakiena. Hori horrela izanik, goiz guztian gazta egiten ari-tuko dira bertan.

Eta, janariaz ari garenez, noski, herri bazkaria ezin aipatu gabe utzi. Egun pasa doanak nonbait bazkaldu behar, eta herriko ostatuetaz gain, herriko

pilotalekuan ere bazkaldu ahal izango du, eguerdiko ordubiak aldera. Txartelak bertan izango dira salgai goiz guztian zehar. Musikarik gabeko festarik ez da munduan. Uhartean ere ez da faltako, eta egun guztian zehar euskal dantza eta musika taldeak ibiliko dira herritik, giroa alaitu nahian.

Ziurrenik, beste urteetan gertatzen den moduan, aurtan ere jendez gainezka izango da Uharteko herria abuztuko azkeneko igandean, Uharteko udaletxearen, Nafarroako Gobernuaren eta Sakanako mankomunitatearen laguntzaz Aralar-Mendi elkarteak antolatutako festa erraldoi honetan. X

## Berriozar

Etzi amaituko dira asteazkenean hasitako jaiak

■ **Gazte zein helduentzat hainbat ekitaldi badira egitarauan**

Erredakzioa / Iruñea

UDA badao eta herrietako festak ere bai. Dena den, oraindik asetu ez denak badu non aukeratu. Eguntan Berriozarren dituzte festak. Asteazkenean hasi ziren, eta etzi bukatuko dira. Egitarauan adin guztietakoak ongi ibiltzeko adina ekitaldi bada.

Gaur haurren txanda izanen da. Eguneroko ohiturari jarraituz, erraldoi eta kilikien konpartsa herrian barna ibiliko da hamaiketarik aurrera, eta ondoren Sebastopoleko Titiriteroak taldeak *Zirko tailerrak* ikuskizuna aurkeztuko du Zortziko plazan. Arratsaldean, bigantxak bukatu ondoren, haurrentzako jolasak izanen ira Eguzki plazan seietan. Beranduago, hamarretan suzko zezenaren aurretik ibiltzeko parada izango dute. Larunbata ere ekarriko du zer ikusteko aukera. Beste ekitaldi batzuen artean, adinduentzako bazkaria izanen da 101 tabernan eta bazkalondan dantziandiko jubilatuaren elkarteak. Arratsalde partean Jota jaialdia eskainiko du Nafarroako Oihartzunak taldeak, eta gauerditik aitzina Iruña Band jazz taldeak dantzaldia. X

## Tutera

TEN Pinpilinpauxa taldeak azken lana aurkeztuko du bihar

Erredakzioa / Iruñea

TEN PINPILINPAUXA antzerki taldeak *La canción del bandido* —prestatu duten azken muntaia— aurkeztuko du bihar 22:30etan Tuterako Gaztanbide antzokian. Antzezlanaren Bertol Brechten *Lau xoxeko opera* lanean oinarritua dago, baina, egungo gertaereta egokitua. Taldeak egungo gizarte nolakoa den islatu nahi izan du. TEN Pinpilinpauxak dioenez, *La canción del bandido* gazteei zein helduei zuzendutako antzezlan da. Brechtek *Lau xoxeko opera*-n bere garaiko gizarte auzitan jartzen zuen bēzala, taldearen obrak hori bera egin nahi du, baino gaurko gizartera egokituta. Hamahiru pertsonaia egungo gizartearen ustelkeriarekin harremanetan dauden edo egon diren pertsonaia dakartzate gogora. X



Elkartasunaren  
etxea

# Zabaldi, elkartasunaren aterpe berria

Nazioarteko elkartasun alorrean lanean ari diren hainbat talde bildu dira aterpe berri bat eraikitzeko asmoz

Juan Kruz Lakasta / Iruñea

ZABALDI elkartasun etxea ez da atzo sortutako proiektua. Ideia aspaldidanik zebilen Iruñean nazioarteko elkartasunaren alorrean lan egiten duten hainbat lagun berru dantzan. Komite Internazionalistak kide Sabino Cuadra, esate baterako, zora-biatzear zegoen, gaiari hamaika buelta ematearen poderioz. «Orain dela hainbat urte, lagun batzuk ideia komentatzen hasi ginen, baina ez genuen ezer egin. Ideiari bueltak ematen segitu genuen, eta duela urte bete, egoitza egokia topatu genuen. Horrek gauzak berriz mugitzera animatu gintuen».

Egoitza egokiaren aurkikuntzak animatuta, proiektuan sartzeko gonbitea luzatu zieten nazioarteko elkartasuna lantzen duten hainbat talderi. «Bildu nahi izan ditugu elkartasunaren inguruan ibiltzen diren talde desberdinak, ez desberdinak izenaren aldetik, baizik eta zeregina-aren aldetik. Askotan pentsatzen da elkartasuna soilik Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) kontua dela, baina ez da horrela, talde gehiago daude. Adibidez, gure ustez SOS Arrazakeriak elkartasunarekin harremana dauka, bai eta bidezko merkataritzaren aldeko taldeak ere, eta ez dira GKEak».



Gauzak horrela, orotara bederatzita talde elkartu dituzte jada «sorta polita», Cuadraren hitzetan- eta zerrendak oraindik irekita segitzen du, beste zenbait talderekin harremanetan baitaude. Egun elkartasun etxean sartuta daude Iruñeko %0,7 Batzordea, Equimerca (bidezko merkataritza bultzatzen duen elkarte), Emakume Internazionalistak (talde feminista internazionalista), Ixim (Chiapasko biztanleekiko elkartasun taldea), Komite Internazionalistak (nazioarteko internazionalismoa lantzen duen taldea), Mugarik Gabe (nazioarteko elkarlana bultzatzen duen Gobernu Kanpoko Erakunde), Se-veñ Sioux (Iparamerikako indioekiko elkartasun taldea), Sodepaz (nazioarteko elkarlana bultzatzen duen GKEa) eta SOS Arrazakeria (arrazismoaren aurkako taldea).

Sabino Cuadraren arabera, horiek guztiak Zabaldi elkartasun etxean elkartzuz ez dute talde bakoitzaren nortasuna ahuldu nahi. Aitzitik, xede nagusia da «bilgune bat sortzea nazioarteko elkartasuna lantzen duten talde aurrerakoi laikoentzat, bakoitzak egiten duena kontatzeko eta gutxion artean eztabaidatzeko, elkar aberasteko». Nolanahi ere, Zabaldik baditu beste xede batzuk. Garrantzitsuenetariko bat da «elkartasun arduratsua egitea egoeraz jabetzen dena eta paternalismorik ez duena». Horretaz

**N**azioarteko elkartasunak aterpe berria izanen du Iruñeko bihotzean, Navarrerria kaleko 25. atarian hain justu, urriaren 10etik aurrera. Egun horretan haren ateak irekiko ditu Zabaldi elkartasun etxeak. Nazioarteko elkartasunaren alorrean lan egiten duten bederatzita talde (GKEak zein bestelakoak) elkartu egin dira, 230 metro koadroko etxabea erosi dute, eta zaharberritzen ari dira, elkartasunari aterpe berria eskaintzeko xedearekin.

gain, Zabaldiko kideek lortu nahi dute gizartearen kontzientzia-zioa, «informazio alternatiboaren bitartez, egiazko informazioaren bidez zabalduz beste herrien kultura, baloreak eta egoera». Hala-ber, sortu nahi dituzte etorkinentzako bilguneak, «haien arteko harremana eta elkarlana errazteko». Bestalde, asmoa dute herri ezberdinetako emakumeen arteko elkartasun harremanak bultzatzeko.

Xede horiek guztiak gauzatzeko, Zabaldiko kideek asmoa dute urtero elkarrekin nazioarteko elkartasunari buruzko aste bat antolatzeko, urtean zehar hamaika hitzaldi eta erakustaldi egiteko, bilera eta batzar andana egiteko eta hiru proiektu zehatz martxan jartzeko: elkartasun denda, etorkinentzako te etxea eta dokumentazio zentroa. Horretaz landara, nazioarteko elkartasunarekin zuzen lotuta ez dauden taldeekin «talde feministekin eta antimilitaristekin, adibidez»- lan egiteko asmoa dute, hitzaldiak, erakustaldiak edo eta bestelako ekitaldiak antolatzeko. Bestalde, euskarari toki garrantzitsua eman nahi diote Zabaldi-



Nazioarteko elkartasuna lantzen duten taldeen bilgune izan nahi du Zabaldik.



## Elkartasunaren etxea

din. Karrikirirekin, AEKrekin eta IKArekin eta Nafarroako Gobernuko Euskaltegiarekin harremanetan daude, euskararentzako toki hori nolakoa izanen den zehaztu nahirik.

**Lehengaiak, elkartasuna** • Hori guztia egin ahal izateko, Zabaldiko kideek Navarrerria kaleko 25. atarian 230 metro koadroko etxabea erosi dute, eta zaharberritzen ari dira. Erosteko 25 milioi pezeta (milioi bat libera) behar izan dituzte, eta zaharberritze lanetan beste bost milioi (200.000 libera) gastatu behar dituzte. Hori guztia dirutza handia izanda ere, ez dute diru eske erakunde publikoengana jo nahi izan. «Gure ustez, erakunde publikoek, gobernuek eta nazioartean agintzen duten erakundeek egungo egoeraren errudun nagusienetako batzuk dira. Horrenbestez, gure asmoa hasieratik izan da horiengandik guztiengandik dirurik ez jasotzea, independente izatea; izan ere, dirua dela eta independentzia gal dezakezu».

Gauzak horrela, bestelako diru iturriak bilatu behar izan dituzte, finantzaketa solidarioa hain zuzen ere. Batetik, talde bakoitzak ahal izan duen diru kopurua jarri du. Bestetik, lagun dirudunen zerrenda egin dute, eta -laguntasun harremana gaitzeko arriskuari jaramonik egin gabe- dirua eskatu diete. «Zerrenda horretako lagun bakoitzari eskatu diogu hilerio milioi bat pezetako mailegua ordaintzeko beharrezkoa den dirua jartzeko». Hau da, bakoitzari eskatu diote epeka milioi bat pezeta ordaintzeko. Antza denez, zerrendako partaideak lagun onak dira, horien bitartez zorra guztia kitzatzea lortu dute-eta.

Zaharberritzea egiteko tenorean ere elkartasuna izaten ari da lehengairik garrantzitsuenak. Langileak musu truk lan egiten ari dira, eta, elkartasunari esker, lehengaiak merke eskuratzen ari dira. Adibidez, egun margotzen ari gara. Margoa eta bestelako tresnak behar genituenez, lagun margolari batengana jo dugu, eta hark kostu prezioari saldu dizkigu. Gauza guztiakin bide hori segitzen ari gara, eta horri esker askoz merkeago atera zaigu.

**Irekiera urrian** • Elkartasunari zuku guztia atera behar izan diote 30 milioi pezeta horiek lortu ahal izateko. Nolanahi ere, Cuadrak egoitzak merezi duela uste du. «Oso toki egokian dago. Hiriarren erdian badago ere, merkea da, ez dagoelako inguru garësti batean. Baina egokitasunaren zergaiti nagusia politikoa da. Handik ehun metrora gizarte elkarte asko daude: LAB sindikatua, Eguzki Irratia, Auzo Elkarteak, Kakitzat, KEMeko egoitza, zenbait alderdi politikoren egoitzak, gazte asko elkarrekin dituzten tabernak, erakunde ofizialak...». Lokalak 230 metro koadro ditu, eta hainbat gela: hitzaldietarako eta bideo



Finantzaketa solidarioa jarri dute martxan dirua atera ahal izateko.

LACALLE

emanaldietarako areto nagusia (40 metro koadro), elkartasun denda (30 metro koadro), etorkinentzako te etxea (65 metro koadro), bilera gela (20 metro koadro), bulegoa (22 metro koadro), komunak, bildegia, patioa...

Zaharberritzea kasik amaituta dago. Bota beharreko pareta guztiak botata daude, eta eraiki beharrekoak eraikita. Halaber, ezindu fisikoentzako sarrera egokiak eginda daude. Egun, guztia margotzen ari dira, eta, ezustekorik gertatzen ez bada, urriaren bigarren hamabostaldi-



rako guztia prest izanen dute irekiera ofiziala egiteko. Urriaren 10ean prentsaren aurrean egoitzaren aurkezpena egingen dute. Data hori aukeratu dute, urriaren bederatzian 30 betetzen direlako Ernesto Che Guevara hil zutenetik. Derrigorrezko erreferentzia da hori nazioarteko elkartasuna landu duen etxerentzat.

Irekiera ofizialaren ostean, urriaren 10etik 25era, ekitaldi hamabostaldia antolatzeko asmoa dute. Egitaraua erabat zehaztu gabe dago oraindik. Nolanahi ere, litekeena da lau

hitzaldi izatea. Mintzagaiak izanen dira neoliberalismoa eta Che. Horretaz gain, hamabost egunotan hiru erakustaldi izanen dira ikusgai. Horiek izanen dira emakumeek mundua mugitzen dute, Chiapas eta Che. Horretaz landa, jai interkulturala egingen dute Zabaldi etxean. Bazkaria izanen da, eta horren ostean hainbat musika talderen kontzertua. Halaber, aldarrikapena falta ez dadin, giza katea egingen dute Nafarroako Gobernua eta Gobernu Zibila lotuz, atzeritarren legea salatzeko. X

## Artisautza, tea eta dokumentazioa

Juan Kruz Lakasta / Iruñea.

Bilerak, batzarrak, batzordeak, hitzaldiak, bideo emanaldiak, ikastaroak, jaiak... Zabaldiko kideek haien elkartasun etxean denetarik egiteko asmoa dute. Nolanahi ere, badira hiru proiektu zehatz, egoitzaren ardatz nagusiak izanen direnak: elkartasun denda, etorkinentzako te etxea eta dokumentazio zentroa.

Equimercado bidezko merkataritzaren alde lan egiten duen taldea arduratuko da elkartasun denda muntatzeaz. «Bidezko merkataritzaren helburua da bidezko harremanak sortzea hegoko kooperatibekin. Harreman horiek bi zutabe dituzte. Batetik, egin duten lanaren eta lortu duten produktuaren truke bidezko prezioa ziurtatzen zaie kooperati-

bei. Bestetik, iraunkortasuna bermatzen zaie, ezegonkortasuna izaten baita hegoko ekizleek izaten duten arazo garrantzitsuenetako bat, azaldu zuen Ubaldo Gonzalez Equimercadoko kideak. Filosofia horretan oinarriturik, denda arrunta muntatzen saiatuko dira. «Gure asmoa da Zabaldiko ordutegiaren arazorik ez badago, denda beste edozein dendak duen ordutegia izatea, eta denetarik izanen dugu salgai. Horrelako dendetan ohikoak diren artisautza lanak ezezik, jakiak ere salduko ditugu: kafea, azukrea...».

SOS Arrazakeriak koordinatuko du etorkinentzako te etxea. Talde horretako kide Martaren arabera, aspalditik zegoen horrelako bilgune-

baten beharra. «Etorkinek ez zuten biltzeko toki bat, eta hori sortzeko gogoia zuten. Zenbait etorkin taldeekin harremanetan gaude, kontua nola antolatuko dugun adosteko, eta gogoz ari dira lanean». SOS Arrazakeriaren helburua da azkenean etorkinak arduratzea te etxearen kudeaketaz. «Hasieran zaila izanen da, gurea beste kultura bat delako, baina etorkizunari begira lortu nahi dugu etorkinek erabakitzea te etxean egiten diren ekintzak, hitzaldi irekiak eta abar». Hasteko, emakume brasildar bat ariko da zerbitzari lanetan. Martaren arabera, ez da kasualitatea emakumea izatea. «Iaz emakume etorkinei buruzko azterketa egin genuen, eta ikusi genuen hain toki bat eskaintzeko

premia zegoela, haien arteko harremanak sortzeko, eta elkarrekin sostengu sareak sortzaten». Azkenik, te etxea etorkinentzat ez ezik, iruindarrentzat ere zabalik izanen dela adierazi zuen SOS Arrazakeriako kideak. «Toki irekia izatea nahi dugu, kultur aniztasunaz aberastu nahi duen edonor gustura hartuko dugu».

Dokumentazio Zentroa talde guztien ardura izanen da, eta Zabaldin izanen den liberatuak koordinatuko du. Horren helburua izanen da Zabaldiko kideei zein Zabaldira informazio eske hurbiltzen den edonori nazioarteko elkartasunari buruzko informazio kopururik handiena eskaini ahal izatea. Lehengaiak, dokumentazioa, lortzeko iturriarik garrantzitsuenak

Hegoa Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE) izanen da. Hegoak Bilbon du egoitza, eta nazioarteko elkartasunari buruzko dokumentazioaren alorra lantzen du. «Sekulako informazio mardoa daukate. Haiekin harremanetan gaude, eta seguru asko lortuko duguna izango da haien informazio guztia honuntza zuzenean bideratzea», azaldu zuen Sabino Cuadrak Komite Internazionalistatiko kideak. Bestalde, Zabaldiko partaide diren GKEak ere dokumentazio iturri izanen dira. Cuadraren hitzetan, «elkartasun etxean sartu diren taldeen artean badaude zenbait GKE garrantzitsu samarrak, Sodepaz, esate baterako, GKE indartsua da, eta badauka dokumentazio dexente». X



Xanti Begiristain

## Onak, hobeak eta bikainak

■ Ez naiz batere futbolzalea, baina, hala eta guztiz ere, gaur hasi behar dut hitz egiten pixka batez horri buruz.

Joan den astean Jose Mari Bakerok iragarri zuen Bartzelonan futbol profesionala utzi behar duela betiko, eta horrek eman dit bidea zenbait gogoeta egiteko.

Hara, azken hilabete hauetan ikusi dugu hainbat jende garrantzitsu erretiratu egin dela, esate baterako, Miguel Indurain, Enrique Zelaia, Jose Mari Bakero eta abar, beste askotxoren artean ziur aski.

Erreparatzen badiegu arreta pixka batekin, berehalaxe konturatuko gara, hirurak ere, adibide berberarekin jarraitzeagatik, gazteak edota oso gazteak direla beren lanbidean jarraitzeko.

Kontua zera da, gorago aipatu ditudan pertsona ospetsu horiek oso onak eta nabarmenak izan direla beren zereginetan. Bakoitzak bere espezialitatean arrunt emaitza on eta fruitu bikainak utzi dizkigu. Ni ez naiz batere aditua gai horietan, eta, beraz, ez dut hasi nahi norberaren ekarpenak azaltzen, beste alde batetik gainera, seguru naiz hori ez dela inondik ere beharrezkoa zeren eta beren egitandiak jende gehienak ezagutzen baititu.

Baina, hala ere, ezin dut ukatu gauza bat, alegia, pertsona trebe horiek oso balentria handiak egin dituzte, eta oraindik daukaten adinarekin ziur naiz gauza izanzen zirela beste ekarpen garrantzitsu asko egiteko, baina erretiratu egin dira eta kittol, uko egin diote gehiago borrokatzeari maila berean behinik behin, eta horixe da hain zuzen ere, pena ematen didana. Jakina, nik hagitz ongi dakit ez naizela inor


inori esateko zer egin behar duen, noiz arte jarraitu behar duen, noiz eta nola erretiratu behar duen eta abar. Hori begien bistakoa da, baina aurreko guztiak esan eta gero ere, uste dut eskubidea dudala adierazteko, niretzat, tamalgarri samarra dela ikustea erretiratzeko direla eta harrezkoztik ez dutela fruitu gehiagorik emanen alor horietan.

Badira beste adibide batzuk, aldiz, poz handiagoa ematen didatenak, hots, izar handiak izandakoak, baina urtetan aurrera joan badira ere, oraindik lanerako gertu daudenak, esate baterako, Andoni Zubizarreta, Ladis Galarza, Julian Retegi, Mikel Mindegia eta abar.

Norbaitek, agian, esan lezake konparazio hori ez dela oso ona. Beno ba, hori onartuta ere, lehendabizikoan eta bigarrenaren artean nik funtsezko aldea sumatzen dut, hau da, lehenengoek gailurrean zirenean, bat-batean aski esan dute, eta utzi ere utzi egin dute.

Esan liteke mendi tontorretik helikopteroz jaitsi egin direla. Bigarrenak, ordea, mendi gaina lortu dute, eta gero progresiboki, beren indarrak aprobetxatuz, beharino jaisten dira.

Lehenengoak niretzat oso onak dira, baina bigarrenak bikainak. Azkeneko horiek mirespena sortarazten didate. Julian Retegik, adibidez, bere ia-ia 43 urterekin hortxe jarraitzen du punta-puntakoa izaten, txapelketak irabazten eta ikuskizunak ematen. Pentsa dezagun, konparaziora, zenbat ikuskari galduko genituzkeen Retegik orain dela zortzi bat urte *adio* esan balio pilotalekuari, edota Pedro Miguel Etxenikek, Bernardo Atxagak, Joxerra Andak eta bestek planto egin balute!



Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

## Constantindarren inguruko berri eli ments bat

■ Ezin dugu esan mende hasmentako Zuberoan zegokeen txürulari famatuenetakoa zen Lexardoat jaunak berekin Londonera zamaltzain eraman zuen Constantin abizeneko atharratzarra geroantzean euskal izkiriagintzan nabarmenduko ziren Constantindarren aitzinekoa zenentz. Edozein modutan ere, izaro britaindarrei buruz heldu jauzigile gehienak denak basaburutarra izaki, ez genbilzke soberaki erraturik hala bermatzerakoan, izan ere, Englandeko hiriburuko Hyde Park lillitegian zein Windsorreko jauretzean maskaradetako jauziak erret sendikoei eskeini zizkietenak, aipatu bigez gainera. Altxabeheitik Epherre kantinierra, Antolako oihanean ahantzirik pausatzen den Hauzeiko gatuzaina, eta Sohütako entsenaria baitziren.

Ziurrenik ere, ordea, Jean Baptiste Constantin santagraztarra, famatuagoa zatekeen Atharratzeko zamaltzain aros huraxe baino, 1847.eko irailaren 5ean sorturik, Izpuran ihardun zuen irakasle 1873. urteaz geroztik. Eskualtzaleen biltzarkidea, eta Eskualduna izparringaren noiz behinkako kolaboratzailea, Atharratzen zendu zitzaigun 1922.eko urtarrilaren 26an. Hori zor diogu bereziki Haritxabaleten berri zehatz mehatzik eukitzea, bestaldetik ere, doi barru, antza, Altuna-Lakarra-Urgell-Sarasola zaldun laukoteak lematu euskal klasikoan bilduma berdexkan 79 zenbakiz horniturik agertzekoa dena, Patri Urkizu lezoarraren eskutik, eia noiz bada. Bien bitartean, eta interesik duenak jo beza Egan paperaren orrialdetara (1985, 3-4, 13-43 orr.), bada, alde aurretik Eskualduna aldizkarian eginko bi satoek arrakasta haundirik izan ez zutelako: «Lüburüsko huntan Haritxabalet zenaren gainen ekarten dügün aipaldiak behar zükian agertü gure nähiala, diala urte parrasta bat. Hersatü ginen Eskualdunari, hartan zatika zatika ezar azarteko jaun apez haren biza. Eskualdunak behin behin hun-hartü zian gure galtua, bena bertan dolütürük, ützi güntian erraiten zeikularik: bego ixilik halako apezaren oritzapena! Eskualdunaren büürü zen jaun apezak, Hiriart-Urruty zenak, etzian arauz seküla Haritxabaleten gainean entzün mihi lüziek erabili dütien eletarik zerbait baizik. Hortan baratü zen gure lan hasia. Geroxiago haatik, Eskualduna eskü kanbiatü zelarik —Blas Ademaz ari da naski—, berriz ere hari büürü abiatü ginen, aitzineko xede berian. Lehen aldtan bezala, bigarrenian ere Eskualduna hasi zen Haritxabalet mintzatzen, bena bizpahirur hoillatan jaun hura aipatü onduan, kaseta üskaldünak hetsi zeikün borta. Eskualdunak ogen üken dü lehen aldtian eta bigarrenian». Guziarekin, eta Jean Baptiste zendu ostein, apez santagraztarrari buruz tajaturik zituen aipu goxoak, behingoz ere, baziren azaldu Baionako aldizkarian (1926.eko jorralaren 13ko 1.376. alekian), beste ziberotar baten eskutik naski, Lhanderen eskutik hots. Dominika Haritxabalet (1760-1834) Santa Graziko eta Santa Grazin jardun apezaz kurritzen diren pasadizo xelebreek, ohi denez, pertsona bera ere gainditu eta estali dute, eta erakusten duten jukutria gatz piperduna, Fernando amezketar bati ere lasal aski egotz lekizkiok: «Haritxabalet etxera heltü zelarik, amak besarkatü zian eta potez abantzu jan. Gero eman zeron edatera. Godaleta etzen txipi, ez handi ere; laborari godalet bat. Hüstü bezain sarri, krakez, Dominikak eror-erazi zian godaleta sotena mahankalat eta esküz lotü zen züntzürriari, üdüri zerbaitet itotzen ziala. Ama hasi zen oihüz: Zer dük? Haritxabaletet egin zian: Deusere, deusere oral, godalet txar hura erori zait ahualat eta gaintitü dü. Ama harritü zen. Egün berian erosi zian Atharratze Martxantienian, barnez gatülu tarro baten heineko godaleta, seme jaunarentako».

Jean Baptiste, herkide zuen Xaxi Garbirekin esposatu zen —sorterrian berean, ia mendea betetzear zegoela (1854-1948), zendu zen andrea—, eta Izpuraraturik zeudela, Albert semea izan zuten Baxenafarroan. Honek medikuntza ikasketak burututa Atharratzen arizan zen bedezi. Pierre Broussain miriku hazpandarraren laguna, harekin izaniko posta-truke nasaia irakur dezakegu Gure Herria aldizkarian (Fonds Broussain: *les lettres du docteur Albert Constantin*: 12-12-1899 - 22-6-1919). Albertek utzi zigun *Les basques et la unification nationale sous la revolution* artikulua, Baionako zientzietako, letretako, arteetako eta bertako ikasketetako Elkartearen aldizkarian azaldu zena. Andre Constantinek ostera, askozaz ere ekarpen zabalagoa eskeini zigun, orduko hainbat aldizkaritan barreiatu: Baionako museoaren argitalpenean, *La vie du Muse Basque de Bayonne* (1924., 1925., 1926., 1934., eta 1941. urteetan), *Le Muse basque à Londres* (1927. urtean), *Les danses spaciales au Pays de Soule* (1927. urtean, eta geroantzean La danse izenburuko liburu soilean, Baionan, 1935.ean), eta *A propos de chocolat de Bayonne* 1933.eko hitzaldi interesgarria: «Sül est une reputation universellement rapandue et qui süest maintenue sans dafailance depuis plusieurs siècles, cüest bien celle du chocolat de Bayonne»; Gure Herria argitalpenean *Au sujet de toki et tegi* (1951.ean), *Hommage de la Soule à M. Saint-Pierre* (1952.ean), *Leön sur le Pays de Soule* (1957.ean), eta euskaraz ondu *Eskulako herria nuntik nula egin den* (1954.ean). Karlos Espilen eta Bittor Aranaren *El País Vasco* (Donostia, 1955.ean) liburuki gotorlean, eta gibelago ekarri Andrearen aitzineko atharratzarrak dantzarekiko zaletasuna iratxeki ballion, öLa danse souletined azalpen sotilak eskeini zizkigun. ■



# Dantza zaharraren azken pausoak

Igande honetan, ia galdurik zegoen ingurutxoak dantzatzeko dute berriro Iribasko Muthiko Alaiak taldekoek



Dotore-dotore aritu ziren duela 27 urte, azkeneko, ingurutxoak dantzatzeko.

**I**ribastarrak pozik dira azken egun hauetan: dagoeneko galdurik zuten ingurutxoak berreskuratzea lortu dute. Herriko jaiak direla eta, igandean, aspaldiko partez, berriro dantzatzeko da ingurutxoak Iribasen. Muthiko Alaiak taldeko dantzariekin batera, herriko jendea ariko da dantzan.

Urko Aristi / Iruñea

ASPALDIDANIK galduta zegoen Iribasko ingurutxoak, baina 1970. urtean dantza zahar hori berreskuratu zuten bertakoek. Lekunberri ospatu behar zen Larraungo bailarako jaia izan zen aitzakia. Herri bakoitzak zerbait egin behar zuela eta, iribastarrei beren ingurutxoak dantzatzeko bururatu zitzaizkien. Lan zaila zen, inondik ere: dagoeneko oso gutxi ziren dantza hori dantzatzeko zekitenak. Baina, hala eta guztiz ere, gazte ugari aritu ziren ingurutxoaren hamar pausoak ikasten jo eta su, nahiz eta jaialdian zortzi bikote bakarrik dantzatu ingurutxoak.

Hamasei laguneko koadrila hartako kide bat zen Miren Juanena, gaur egungo berreskuratzearen errudun nagusia. Orain berrogei urte ditu; beraz, orduan 15 baino ez zituen. «Betidanik izan dut pena hori. Niri asko gustatu izan zaizkit horrelako kontuak, eta pena ematen zidan gure historiaren zati bat horrela galtzeak», dio Mirenek.

Duela urte batzuk bururatu zitzaizkien Mireni eta zenbait laguni ingurutxoak berreskuratu beharra zegoela. «Irurtzungo dantzariak etortzen ziren herriko festetara, eta Iribasko ingurutxoak dantzatzeko zutela esaten zuten, baina hura ez zen gure ingurutxoak. Antzekoa bai, baina zenbait

gauza desberdin zituen», esan digu Mirenek. «Horregatik, benetako ingurutxoak, den bezala dantzatzeko, gauza polita litzatekeela pentsatu genuen». Pentsatu eta egin, biak bat. 1970eko saio hartan aritu ziren zenbaitekin harremanetan jarri eta Orritz, Ortazar eta Muthiko Alaiak taldeetako kideei erakutsi zieten dantza zahar hau. Horrela, dantza taldeek ikastearekin, ingurutxoaren jarraipena ziurtatzen zuten.

Noski, dantzariak musikari behar dute, haren arioren dantzatzeko. Eta dantza gehien modura, Iribasko ingurutxoak ere badu bere melodia. Juan Mari Beltran musikari ezagunari esker lortu dituzte dantzaren partiturak. Juan Mari, Gipuzkoan bizi den arren, Iribasko ingurutxoak du ama, eta duela 27 urte egin zen jaialdi hartan bera izan zen txistularia. Ordudanik, partiturak ondo gordeak zituen etxean. Igandeko emanaldian ere bera ariko da txistua jotzen.

Baina dantzariak gain, herriko jendeak ere ikasi nahi zuen arbasoek utzitako dantza. Horrela, igandero-igandero lagun ugari biltzen zen, eguerdi partean, Iribasko pilotalekuan. Bertan emandako orduak izan dute emaitza: igandean, hilak 29, arratsaldeko 18:00etan, Iruñeko Muthiko Alaiak dantza taldeak eskainiko duen emanaldiaren barruan, Iribasko ingurutxoak

izango da, eta, gainera, herritarrek ere ariko dira, dantzariak lagunduz.

«Iribasko jendeak oso pozik hartu du berria, nahiz eta zenbait ez sinetsi ingurutxoak gordeko dugunik», dio Mirenek. Mirenen seme-alabak Muthiko Alaiak taldeko kideak dira, eta hirurak aterako omen dira dantzara igandean: «Gogo bizia dut. Gona luzea eta alkandora txuria jantzi, eta hala! dantzara!». Eguraldi ona eginez gero, aspaldiko moduan larrainean dantzatzeko dute ingurutxoak, eta bestela pilotalekuan.

Inork ziur-ziur ez badaki ere, ehun urte inguru izango ditu Iribasko ingurutxoak. Ehun edo, beharbada, gehiago. Mutilak gustukoa zuten neskaengana joaten omen ziren dantza eske, etxeko ateraino. Neskak baietz

esanez gero, painuelo txuritik heldu, eta beste gazteengana. Denak ilaran jarri, bikote bat bestearen atzetik, eta ingurutxoak dantzatzeko prest jartzen ziren. Neskak, behintzat, egun hartarako ahalik eta soinekorik apainena bilatzen saiatzen ziren. Zenbait soineko berria egiten zuten ingurutxoarako, eta orduan denek ahotan izaten ziren.

Guztira, hamar pauso ditu dantzak. Lehenengo hiruretan, neskaen eta mutilaren artean painueloari heltzen diote, kontaktua pertsonalik izan ez dadin. Baina laugarrenetik aurrera, mutilak painuelo (beti txuria) lepoan ipintzen du. Azkeneko bi pausoak arin-arina eta porrusalda dira.

Leitzako eta Beteluko ingurutxoekin badu parekotasunik Iribaskoak, baina baita desberdin-

tasunik ere. Betelun, Iribasen gertatutakoaren antzera, aspaldiko urteetan galduta egon zen. Baina duela 12 bat urte, bertako Astunalde dantza taldeak berreskuratu egin zuen, besteak beste Milagros Alzugaraik eta Mila Peredak egindako ahaleginei esker. Leitzan, berriz, ez da horrelakorik gertatu, leitzarrek tinko eta gogor eutsi baitiote ohi-turari, eta herriko jaietan egunero dantzatzeko dute ingurutxoak, goizaldeko hirurak aldera, musika bukatutakoan. Gero, azken egunean, ezkonduen ingurutxoak izaten da bertan. Larraungo herri gehienetan ere ba omen zen ingurutxoak, baina gaur egun ez da inon dantzatzeko. Dena den, badirudi uitziarrek ere iribastarren pausoak jarraituz ohi-tura aberats hori berreskuratu nahian dabil-tzala.

## Ingurutxoak, Nafarroa guztian

NAFARROAKO beste zenbait herritan ere dantzatzeko da ingurutxoak. Lekuan lekuko berezitasunak izaten ditu dantza honek, baina gehienak nahiko beretsuak dira. Hasi-rako pausoak jendea erakartzeko izaten dira, eta ikusleak ere dantzari bilaka daitezke lortu nahi da. Gero, zortzikoan, mutilak nesken aurrean oiltzen dira eta harroharro dantzatzeko dute. Gero, bukaeran, denak batera, jai giroan, fan-

dangoa eta arin-arina dantzatzeko dute. Ondoren dantzatzeko kale-jirarekin amaitu ohi da ingurutxoak.

Leitzako eta Beteluko dira, hemen, ingurutxoak ezagunenak, baina asko eta asko daude, edo zeuden behintzat, Nafarroa guztian, nahiz eta haierako gehienak galdurik egon. Bestela, Gipuzkoan eta badira ere sona handikoak: Bedaiokoa...

Betelun, Iribasen gertatutakoaren antze-

ra, aspaldiko urteetan galduta egon zen. Baina duela hamabi bat urte, bertako Astunalde dantza taldeak berreskuratu egin zuen, Milagros Alzugaraik eta Mila Pereda ama-alabak bezalakoek egindako ahaleginei esker.

Leitzan, berriz, ez da horrelakorik gertatu, leitzarrek tinko eta gogor eutsi baitiote ohi-turari, eta herriko jaietan egunero dantzatzeko dute ingurutxoak, goizaldeko hirurak aldera, musika bukatutakoan.

Gero, azken egunean, ezkonduen ingurutxoak izaten da bertan.

Larraungo herri gehienetan ere ba omen zen ingurutxoak, baina gaur egun ez da inon dantzatzeko. Dena den, badirudi uitziarrek ere iribastarren pausoak jarraituz berea den ohi-tura aberats hori berreskuratu nahian dabil-tzala.

Dena den, ezin ahaztu, Nafarroako dantza nazionala, hau da, larraindantza ere ingurutxo bat dela. X



◆ Joxe Ulibarrena ◆ Eskultorea

# «Edonori zer garen erakutsi nahi diot»

**N**afarroako On Pedro Mariskala Fundazioaren laguntzarekin Joxe Ulibarrena eskultoreak Pirinioetako erresumaren oinarriak biltzen dituen erakusketa zabaldu du datorren irailaren 14ra arte Iruñeko Gotorlekuko Arma Aretuan.

Irene Arrizurieta / Iruñea

PATXADAZ ikustekoa da Ulibarrenak beste askoren laguntzarekin Arma Aretoko hiru solairuetan ipini dituen izkribu, artelan eta lanabesak. Harat hurbildu diren askok egin moduan, guk ere eskultorearen azalpenak entzunaz egin dugu buelta.

■ Erakusketak lanbide askotako artisten bidea erakusten duela zenion zabaldu zenean. Gure arbasoen egunerokotasuna gogoratu duzu?

Hemen gure sendagile, legegile, sastre, margolari edota okinen jakinduria biltzen da. Batek dakiena eta gertaeren bidez frogatu duena, ez teoria. Norbait bere lantegian edo laboratorioan saioak egiten ari denean, era berean, froga daitekeena eta ez daitekeena saitzen ari da.

■ Erakusketan hainbat izkribu eta liburu, egurrez eta harriz egindako objektuak, artelanak daude. Hemen Iruñeko edo zuk diozun bezala Pirinioetako Erresumaren aztarnak aurkitzen dira?

Hemen oso gertakari zaharrak topatzen ditugu. Garai batean jendeak beren herrietan eta lantegietan eguneroko bizitzaren inguruko guztia moldatu behar zuen eta hortik datorkie duten jakinduria eta orijinaltasuna. Inor ez zaie erakustera etorri, baizik eta egin duten gogoetak natura ulertzeko era erakutsi die, eta elkarlanean bizitzeko bidea. Hemen aurkitzen diren objektu zaharrak Artetako Etnografia Museotik ekarriak dira. Besteak beste 28 margo daude, Inkisizioan hereseen aurka erabilitako makina, 1948an Ramon y Cajalen Petillako etxean aurki-


tu nituen medizina liburuak. Guztion artean -auzolanean- gaiztakeria intelektual bat egin dugu. Edozeini zer garen eta ez zer izan garen erakustea. Orain gure arbasoekiko zor intelektual gutxiago dugu. Oroituak izan daitezten nahi dut, eta, batez ere, haien oinarriak izan gaitezen.

■ Erakusketa zabaldu zen egunean auzoko arteaz mintzatu zinen eta erakusketari auzolana dariola zenion.

Auzokoarekin edo lagun hurkoarekin elkarbizitzeko era dagoen zaharrena da. Soziologiak eta, beraz, jakinduria artifizialak, antolaketa modu bat dela dioen arren nik ez dut hori uste. Auzokoarengan ez dago lagun hurkoa izateko nahia besterik, eta ordainean, inork ezin du inor erosi eta inork ezin du bestea gutxietsi. Hori ez da beste kulturatan gertatzen eta hemen bai. Hori herri bakoitzeko batzarrea da, horrek duen aberastasun antropologikoa ez dago beste inon. Teilatuak ituzurak ditu, guztiena da, beraz, guztion artean moldatuko dugu.

■ Beraz, gero eta gutxiago praktikatzen den auzolanaren erakusle da Gotorlekuan jarri duzuna?

Guk auzokoak izan nahi dugu eta auzolanean lan egin. Erakusketa ere horrela egina da. Erakusten ari garen eguneroko auzolaneko partaide izan nahi ez duenari, inposaketekin datorrenari zibilizatu daitezela esanen nieke, eta auzokideak izan daitezela. Grezian demokrazia jaio zela diotenean, nolako jakinduria zuten haiek morroiak bazituzten. Nik ez nuke inoiz morrorik izanen lotsagarria delako eta portaerarik atzerakoiena delako. Guk ez dugu aldarrikatzen, bai-



Joxe Ulibarrena beste askoren laguntzarekin urte eta erdi egon da erakusketa antolatzen.

JOXE LACALLE

zik eta auzokoa ez eratsotzea eta hark egin duena errespetatzea eskatzen dugu. Auzokoaren jakinduria eta bizitzeko era aintzat hartzea eskatzen dut. Egun, auzolana ez da garai batean egiten zen modukoa, baina oraindik gordetzen dira forma horiek. Euskal etniaren oinarriak eta barrunbeak ageri dira hemen. Auzolanaren aurka eta gure euskal etniaren aurka mintzatu dena. Beste antolaketa motak elitistak dira, norbaitek bestea ez duelako estimatzen.

■ Zuk behin eta berriro aipatzen duzun auzolanean bizitzeko

era oso herri gutxitan gertatzen da egun.

Hori horrela da, eta horregatik diot behin eta berriro auzolanean bizi nahi duena erasotu egiten dela. Jakinduria artifiziala dutenek gizateria antolatzen dute, baina ez dute haien edertasuna eta osasuna. Errege, ministro eta agintari guztiei esanen nieke Nafarroako Pirinioetako Erresumaren benetazko dokumentuak eta monumentuak ikustera eta ikastera joan behar luketela eta aztarna horiek esanen diete zer izan zen erresuma.

■ Erakusketak didaktikoa izan nahi du, hortaz?

Bai, batez ere didaktikoa izan nahi du. Jendea zibilizatzen ez den bitartean horrelako erantzunak jasoko ditu. Auzokoaren probokazioa izan nahi du eta dagokionari esan zergatik ez den joan Iruñeko Erresumaren lehen armarrira, edo Pobleten lurperatua dagoen Bianako printzearen hilobia ikustera. Eta ni ez noa horien aurka, baina ikasi eta zibilizatu daitezten eskatzen diet eta jarri dizkiguten muga guztiak noiz desagertuko diren galdetu. X

s o s l a i a

Joxe Ulibarrena eskultore azkolendarra adinean gorabada ere, oraindik ere sasoi onean dagoela nabari du. Hogeita bost urte baino gehiago daramatza euskaldunen bizitza eta egunerokotasunaren lekuko diren izkribu, lanabes eta bestelako materialak biltzen Artetako Etnografi Museoa.

Ulibarrena aspaldian Artetan bizi da, museoa bere kargu baitu. Egunotan goizetan museoan egoten da, eta arratsaldetan Iruñeko Gotorlekuko Arma Aretoko erakusketan haren inguruan azalpenak entzun nahi dituenaren zerbiztura.

Aurrerantzean ere badu beste asmorik. Eskulturak egiten jarraitzen du, eta urrian hiriburuko Azul arte galerian erakusketa zabalduko du urrian. Marrazkiak, eskulturak eta tapizak jarriko ditu. Aurki Lyonen edo Avignonen egiten den harri lehorreko arkitektura -material juntagarriak gabe erakitako eraikuntzak- jardunaldietara joanen da.

Gauzak ez dira artistiko edo ez artistiko; gustatzen zaizkidalako edo 'por-culo' ematen didalako egiten ditut

## BEKARIO!

Zaldi Eroa

MAIKEL  
BEKARIOA  
eta  
PRIMITIBO  
(LIBERTUS)

